



247. zenbakia

• Urtarrila 2025 •

pulunpe

Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Gure eskuak lorategian *Anne Hebert, Munduko Poesia Kaierak*

Gure eskuak lorategian
Landatzea pentsatu dugu
Hamar hatzeko adarrak
Hezur-zuhaitz txikiak
Lore-zerrenda maitea.

Egun osoan itxaron ditugu
Txori gorria
Eta hosto berriak
Gure azazkal leunduetan.

Eztxoririk
Ez udaberririk
Ez da erori gure esku moztuen tranpan.

Lore bakar batentzat
Kolorezko izar ñimiño bakar batentzat
Hegaldi bare bakar batentzat
Hiru aldiz errepikatutako
Nota garbi bakar batentzat

Hurrengo urtaroa beharko da
Eta ura bezala urtutako gure eskuak.

Irailaren 16tik aurrera **Esan Erran irratiko denboraldi berria martxan!**

Astelehenetik ostegunera, zuzenean, goizeko 10:00etan:

EGUN ERO magazina

(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Ostiralean, goizeko 10:00etan, txandakatuz:

EGUN ERO KANTUZ eta **MEMORIAREN TXOKOA**

(13:30ean eta 20:00etan errepikapena)

Ostegunetan, 19:00etan,

BROMA GUTXI

(larunbatetan 20:00etan errepikapena)

Eta, gainerakoan, Arroza sareko irratsaioak eta Zebrabidea magazina, Euskalerrria irratia, Naiz irratia, puntako musika, podcast desberdinak...

PIZTU ESAN ERRAN!

FM-ko 107.9 edo

amezti.eus/irratia/zuzeneko



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkarte, Patxi Irurzun eta Alazne Fdez. de Muniain.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Egilea, Irantzu Perez.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira urtarrilaren 8an bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Hermina Coquenao, Angolatik Etxalekura*

07

Ingurumena. *Lursagua*

08

Kronika. *Denok Bat jubilatuen elkarte*

10

Albisteak.

14

Zer jan hura izan. *Magnesioa eta D bitamina*

16

Erreportajea. *Kirolerrezeta*



20

Gure hizkera. *Apeza*

24

Aspaldiko kontuak. *Nolakoak ziren Goñi Lazkanotarrak?*

27

Ardo freskotik. *Urbanidatea, ez urbanismoa*

28

Elkarrizketa. *Amaia Apalauza, Abolizioa*

30

Zer ikusi. *amezti.eus-en*

32

Zer irakurri. *Ultzamako Liburutegia*

34

Jaiotzak, eskontzak eta heriotzak. *Azaroa*



Hermínia Patrícia Coquenão Daniel Etxalekuko auzokide berria

Angolan jaio zen duela 37 urte, Luanda hiriburuan. Angolan ditu gurasoak, ama etxekoandrea da eta aitak elikagai denda batean lan egiten du. Dituen sei anai-arrebetatik hiru han bizi dira eta beste hiruak Lisboan. Mina, berriz, horrela deitzen diote, Santiago de Kuban eta Lisboan bizi izan ondoren, Etxalekura etorri da, bikotekidearen jaioterrira. Portugesa da bere ama hizkuntza eta orain euskara ikasten ari da Lazkaon, barnetegian.

Abuztuaren 29an iritsi zen Hermínia Coquenão Etxalekura (Imotz). Baina, urritik, Lazkaon bizi da astelehenetik ostiralera, barnetegian. Lehenengo aldia du Euskal Herrian baina argi du gure hizkuntza ikasi nahi duela: "Euskarazko hitz batzuen esanahia ezagutzen joan nintzen eta batzuk oso politak iruditu zitzaizkidan. Horrek poliki-poliki erakarri ninduen. Barnetegia ikasteko modurik hobereena da, jendeak etengabe hitz egitea. Azkenean zerbait ikasten da, belarria lantzen duzu". Momentuz hiru hilabeterako eman du izena baina jarraitu nahiko luke.

Astelehenetik ostiralera Lazkaon zaude. Nola bizi duzu barnetegia?

Ikaragarritzko murgiltze ariketa da. Barnetegian ez duzu eskapatzerik, edozein une edo toki aproposa da ikasteko. Hasieran zarata entzutea bezala besterik ez zen ez nuelako ezer ulertzen, zerotik hasten zaren horrela izaten da. Gogorra izan zen, hasieran negar asko egin nuen eta lehenengo astea amaituta ez nuen jarraitu nahi (irriak). Karrusel batean bezala nago, batzuetan oso gogotsu baina beste batzuetan bajoi izugarriarekin. Baina hizkuntza ikasteak borroka jarrai bat izan behar du, eutsi behar zaio eta nik benetan ikasi nahi dut. Niri kosta egiten zait nirea latinetik datorren hizkuntza delako eta ondoren espainolez ikasi dudalako. Euskararen

gramatika oso diferentea da, ez gaudu ohituta.

Kanpotik etorri den jende gehiago ba al dago?

Gure klasea herrialde gehienetako pertsonak biltzen duena dela diote. Zenbatu ere zenbatu ditugu: zazpi

“ **Hizkuntza ikasteak borroka jarrai bat izan behar du, eutsi behar zaio eta nik benetan ikasi nahi dut** ”



Landa eramuko eskola batean, Luandako Sossa auzoan

hizkuntza ezberdin hitz egiten ditugu. Bestak beste, Errumaniatik, Mexikotik, Boliviatik, Ekuadorretik, Bartzelonatik eta Japoniatik ere etorriak dira. Japoniatik etorri den ikasleak erraztasun handiagoa duela uste dut, euskararen estruktura gramatikala ulertzeko. Baina guretako zaila da, guk aditzak hasieran jartzeko ohitura dugu, adibidez! (irriak). Nik hitzak bere itzulpenarekin ikasi nahi nituen, banan-banan, ez bainuen ezer ulertzen. Baina ikasteko modurik hobereena da hau, jendeak zuri etengabe hitz egitea, denbora guztian. Azkenean zerbait ikasten duzu, belarria lantzen duzu.

Nola gainditu zenuen lehenengo oztopoa? Nola berreskuratu zenuen gogoak?

Inguruko pertsonak izan dira gehien lagundu nautenak. Barnetegiko irakasleak zoragarriak dira, haiena gozotasunaren pedagogia da. Niregana gerturatzeko ziren eta ariketekin laguntzen ninduten. Baina momentu bat iritsi zen non askatu ninduten. Hasieran nire ondora etorri behar ziren denetan laguntzeko, baina gero nire kabuz hasi nintzen. Klase-kideek ere asko lagundu naute eta Etxalekuko jendeak eta nire bikotekideak ere indar handia eman didate. Barnetegira itzuli nahi ez nuen batean bikotekideak esan zidan, mugikorra erakusten zidala: "Begira, japoniera, ez al da zaila? Eta arabiarra, ez al da zaila?"



Eta begira errusiera nolakoa den!”
Eta nik: “Bai, egia da, euskaraz behintzat irakurtzen duzuna esaten duzu” (irriak). Dena izaten da zaila baina benetan zerbait nahi baduzu eutsi behar diozu.

Angolan askok portugesa hitz egiten dute kolonia portugesa izan zelako. Baina bertako hizkuntzarik ere ba al duzue?

Bai, zazpi bat gutxienez. Barregarriena da nik ez dudala horietako ezta bat hitz egiten. Han nengoe-la haiek ikasi nahi nituen baina ikusten duzunez guk askotan gure hizkuntzei ez diegu garrantzirik ematen. Han ez da erraza, unibertsitatean ikasi behar duzu eta dirutza ordaindu behar duzu. Hemen, Etxalekun, gurasoek seme-alabekin euskaraz hitz egiten dutela ikusten dut, haiek esaten duten bezala, umea eskolara edo kalera ateratzen denean gazteleraz ere ikasiko du baina lehenengo euskaraz ikasi behar du. Bertakoa, jatorrizkoa baloratu behar da, mantentzeko. Guk transmititzen ez badugu uneren batean eten eginen baita. Hemen ikusi dudanez zuek asko errespetatzen duzue kultura, herri batek duen gauzarik ederrena baita. Nahiz eta askotan topo egin dut kontrakoarekin, “ez, nik ez dut euskara behar” esaten zidan jendearekin. Baina nik bai, nik ikasi nahi dut.

Luandan jaio zinen. Nolakoa da?

Luandako erdigunean jaio nintzen. Hazi bitartean, baina, bestelako auzoetan ere bizi izan naiz, auzo gogor batzuetan, adibidez Sambizangan. Oso auzo gogorra da, delinkuentzia maila altua du. Askotan esaten da seme-alabak bertan hazten baldin badituzu okertuko direla. Baina beno, ni ongi atera naiz, neska txintxoa naiz (irriak). Gero, 24 urte nituela, Kubara joan nintzen eta itzuli nintzenez nire gurasoak beste auzo batera aldatuak ziren: Viana auzora.

Kubara ikastera joan zinen, zergatik?

Angolak Kubarekin hitzarmen bat du. Kubak beti babestu baikaitu, gerra garaitik (Angolako Gerra Zibila, Independentzia Gerraren ondoren lehertu zen eta 1975etik 2002ra bitartean iraun zuen, Afrikako gerrarik luzeena izan zen). Orduetik Angolak oso harreman polita du Kubarekin. Hitzarmen baten ondorioz Kubak profesionalak bidaltzen ditu Angolara; eta, aldi berean, Angolak ikasleak bidaltzen ditu Kubara, han ikasi dezaten. Baina ez bakarrik Kubara, munduko beste toki batzuetara ere bai. Hori behintzat nahiko ongi dugu (irriak). Gure etxean xumeak ginenez eta unibertsitatea ordaintzeko dirurik ez genuenez, proiektu honen bidez egin

nuen. Dena den, gure familiak ez zuen nahi ni atzerrira joatea, elkarrekin egotea nahi zuten. Baina azkenean eskuak ireki zizkidaten eta ikusi zuten nire hoberako zela.

Pedagogia ikasi zenuen?

Pedagogia eta Psikologia. Unibertsitateko ikasketen aurretik Luandatik kanpo zegoen herri batera joan nintzen Gobernu Kanpoko Erakunde batek kudeatzen zuen eskola batean aritzeko. Boluntarioak ekartzen zituen munduko herrialde guztietatik, irakasteko: Brasil, Portugal, Europako eta Afrikako toki askotarikoak. Eta nik bertan Lehen Hezkuntzako Pedagogia ikasi nuen bi urtez eta ondoren praktikak, landa eremuan. Garai hartan Angolako landa eremua oso txiroa zen, oraindik ere bada, baina garai hartan gehiago. Nekazaritzaz bizi ziren eta askotan umeak ez ziren eskolara joaten, gurasoek lanera eramaten zituztelako. Horregatik, gure lana ez zen bakarrik irakasle gisa, gurasoak sentsibilizatu behar genituen haien seme-alabak eskolan egotearen garrantziaz ohartu zitezen. 2005. urteaz ari naiz. Ume batzuk oso urrun bizi ziren eta ez zegoen errepiderik, lur zanpatuzko bideak ziren eta oinez joan behar zen. Gurasoen alfabetizazioan eta jarduera kulturetan ere lan egiten genuen; eta baita osasun heziketan ere: Afrikan intzidentzia handia duten IHESaren eta hainbat epidemiaren inguruan.

Garai haietan piztu zitzaizun pedagogia ikasteko gogoak, beraz?

Bai. Kubara doan gehiengoak medikuntza ikasi nahi du. Baina nik pedagogia ikasteko proba egin nahi nuen (programan sartzeko azterketa bat egiten baitizute). Kuban oso ongi ginen, ikasteagatik ere ordaindu egiten ziguten. Amaitu ondoren beste herrialde batera joateko aukera ere bazegoen, baina nik Ango-



▲ Mina (ezk.) eta bere ahizpa, Luandan



lara itzuli nahi nuen, bertan lan egin nahi nuen, ekarpena egin eta jasotakoa itzuli. Denbora batez kanpoan bizi ondoren, ordea, itzuli eta aldea ikusten duzu. Kuba herrialde txiroa da baina oso ongi antolatua dago. Angolara iritsi eta ustelkeriak kutsatutako herrialde bat ikusi nuen, nepotismoak hartuta. Asko ikasten baduzu ere lana aurkitzeko familiko norbait izan behar duzu bertan. Gainera ez dago oinarritzko osasunik, ospitaleak oso eskasak dira, eta hori natura baliabide aldetik izugarri aberatsa den herrialde batean: petrolio eta diamanteak baititu. Nik ezin nuen bertan jarraitu.

Eta familiaz berriz aldentzea nola izan da?

Egiari zor amak ez zuen ni itzultzea nahi. Ama batek bere seme-alabendako hoberena nahi du, eta nik bertan bizitzeari ez niola utsiko ikusten zuen. Nik baino lehenago bazekien eta beste toki batera joateko esaten zidan. Eta nik ezetz, Angolara itzuliko nintzela. Baina hara iritsi eta pila bat sufritu nuen. Lanik gabe galduta sentitzen nintzen. Nire bizitzako momenturik gogorrenetariko bat izan zen. Asko frustratzen nintzen, ito egiten nintzen. Ni oso neska alaia naiz eta honezkero ez nintzen horrelakoa. Gainera, familia bat osatu nahi dut eta 37 urte ditut! Eta han ez nuen aurkitzen nire helburu berberak zituen norbait. Hor erabaki nuen pertsonak ezagutzeko aplikazioetan sartzea! (irriak) eta begira nora eka-

“ Mulato txiki batzuk nahi ditut hemendik lasterka eta euskaraz ”

rrri nauten! Eta euskarak ilusio hori itzuli dit! Ikasteko gogo horiek, borroka egiteko gogoak.

Nola ikusten duzu etorkizuna? Familia bat osatu nahi duzu, behar bada hemen Euskal Herrian eta euskaraz?

Bai, mulato txiki batzuk nahi ditut hemendik lasterka eta euskaraz! (irriak). Euskaldunak eta zoriontsuak ere izan daitezten: hezkuntza on bat jasoz, osasuntsu haziz, bizia ongi garatzeko aukerekin. Guk Afrikan haur heriotza tasa handia dugu. Nire seme-alabek toki hobe batean haztea nahi dut. Ez ditut besterik gabe mundura ekarri nahi, ongi egon eta bizi daitezten ere nahi dut. Eta niri dagokidanez, irakasle gisa lanean eta euskaraz hizketan irudikatzen dut nire burua.

Nola daramazu herri txiki batean bizitzea? Luanda, Santiago, Lisboa... Etxaleku oso bestelakoa da...

Egia da hiri handietan bizitzera ohituta nagoela. Nahiz eta etxean

denbora asko egotekoa izan naitzen, kalean zarata, jendea, kotxeak entzutera ohituta nengoen. Hona etorri nintzenean aldaketa handia izan zen! Baina ohitu egiten zara eta maite duzu. Momentu bat iritsiko da non hirian ezin izanen naizen bizi! (irriak). Hasieran gogorra egin zitzaidan, sofan jartzen nintzen triste samar... (irriak). Gainera ez zen hori bakarrik, hona iritsi nintzenean ez nuen ezer egitekorik, eta, orduan, pentsatzen eta pentsatzen aritzen nintzen... orain euskarak hartu du toki guztia eta ezin dut pentsatu! (irriak).

Herriak nola hartu zaitu?

Nik hasieran beldur handia nuen, beldur handia baitiot arrazismoari. Honezkero bizi izan dut eta berriz ere bizitzeari beldurra diot. Behin, Etxalekuko biltokira joan ginen eta bikotekideari esan nion: "Urko, hemen denok zuriak dira! Ni naiz beltza bakarra!", eta hark lasai egoteko erantzun zidan eta nik esandakoa kontatu zuen! (irriak). Baina oso-oso ongi hartu naute, izugarritzko maitasun keinuak jaso ditut. Behin emakume bat etorri zitzaidan eta esan zidan: "Niretako oso garrantzitsua da zu eta Lulu (Boliviako emakume bat) hemen egotea eta gure seme-alabek zuekin batera hazteko aukera izatea".



Astelehenetik ostiralera, Lazkaon

Barnetegian goizez 9:00etatik 13:30 arte; eta, arratsaldean, 16:00etatik 18:30 arte klaseak dituzte. Baina, 8:00etatik gosaltzera doazenetik, 20:00etan afaltzera doazen arte jendez inguratuta eta hizketan ematen dute egun osoa: "Bazkalondoan eta tarte horietan ere hizketan egoten garenez asko ikasten dugu". Klaseez gain euskal kulturaz ere ikasten dute: museotara, inguruko herrietako ferietara eta hainbat ekimen kulturaletara joaten dira. Gainera, euskal filmak eta elkarrizketak ikusten dituzte.



Ez naiz sagua, ezta satorra ere; lursagua naiz

Ugaztun hitza entzutean, askotan burura etortzen zaizkigun lehen ordezkariak tamaina handienekoak izan ohi dira: hartza, otsoa, oreina... Batzuetan etxekotutako katua edo txakurra dira agertzen lehenak, edo urruneko lehoiak eta elefanteak. Ikusgarritasunak lehia irabazi ohi dio ugaritasunari, are gehiago ugarienek ospe txarra dutenean, karraskarien kasuan bezalaxe.

Munduan, karraskariena da ugaztunen artean talde anitzena. Gaur egun, 2.000 espezieetik gora ezagutzen dira, eta horrek ugaztun guztien %40 hartzen du, gutxi gorabehera. Euskal Herrian, berriz, karraskariak bigarren postuan daude aniztasunari dagokionez, saguzarren atzetik (izenean "sagu" barneratuta duten arren, ez baitira talde berekoak). Karraskari ezagunenak xagua eta arratoia ditugu seguruenik, baita fobia gehien pizten dituztenak ere. Baina bi "etsai" famatu horiez gain, gure lurraldean beste hamabost karraskari espezie ditugu. Gaurkoan, askorentzat oharkabean pasatzen den bat ezagutuko dugu: landa-lursagua.


Itxura borobileko eta belarri eta isats motzeko animaliatxo hau nahasten erraza izan daiteke, itxuraz saguekin baitu antzekotasun handiena, baina bizimoduz satorrekin. Izatez, izenak berak nahikoa pista ematen dizkigu: lurrean bizi den "sagua". Animalia hauek bizitza gehiena lurrazpian ematen dute. Bertan barrunbe esferiko bat eraikitzen dute lurrazaletik 30-50 cm-ra, beren habia dena, eta hura kanpoaldearekin konektatzen duten hainbat galeria eraikitzen dituzte. Galerien sarre-irteerak, ordea, ez dira satorren lurrezko menditxo identifikagarri horien itxurakoak, lurzoruko zulo biribilak baizik.

Habia horietan landa-lursaguen elikagaiak pilatzen dituzte, kumeen babesleku ederra ere badira, eta lotarako ere erabiltzen dituzte. Eme bakoitzak bere habia eraiki ohi du,

Bitxiki, batzuetan emeen artean partekatu egiten dute habia; bost emek habia bera erabili dezakete, eta denek batera defendatzen dute

baina, bitxiki, batzuetan emeen artean partekatu egiten dute habia; bost emek habia bera erabili dezakete, eta denek batera defendatzen dute.

Tamaina txikiko animalia askotan gertatzen den legez, landa-lursaguen bizitza ez da oso luzea izaten. Espezie honetan jaiotzen diren animalien %65 soilik iristen da hilabete bat betetzera, eta batzuetan beste 4,5 hilabete bizi dira. Gehienak ugaltza eta gutxira hiltzen dira. Alabaina,



▲ Lursagua. Manuel R.

LANDA-LURSAGUA (*Microtus arvalis*)

Taldea: Ornoduna/Ugaztuna/Rodentia.

Neurria: 96-122 mm-ko gorputza eta 28-42 mm-ko isatsa.

Non bizi da? Belar edo zuhaixka asko dagoen eremuak ditu atsegin, baina hainbat habitatetan aurki daiteke.

Zer jaten du? Belarjale hertsia da, landare dikotiledoneoak ditu gustukoak.

Mehatxuak: Nekazaritza intentsiboa eta pestizidak.

Babes maila: Ez dago babestuta.

hilkortasun-tasa altuari aurre egiteko animalia txikiek erabiltzen duten estrategia (r estrategia) kume asko izatea da. Landa-lursaguen populazioek eztanda demografikoak izan dituzte azken urteetan, eta duela urte batzuk nekez ikusten baziren ere, gaur egun ingurune askotara zabaldu direla dirudi.

Animalia hau, beste hainbeste bezala, ezezaguna zen gutako askorentzat, baina horrek ez du esan nahi inondik ere berezitasun falta duenik, ezta garrantzia gutxiago duenik ere txikia izateagatik. Ez da sagua, ezta satorra ere; lursagua da, berezia. Eta ez da bakarra. Euskal Herrian beste sei lursagu espezie ditugu, bakoitza bere berezitasun eta ezaugarriekin.



Irati Diez Virto. Argian argitaratua,
2024ko abenduaren 23an

Denok Bat

jubilatuen elkartea

2024ari agur

Mus txapelketa, urte bukaerako festa eta hainbat mendi buelta egin ditugu Denok Bat elkarteko kideok azaro bukaeran eta abenduan. Horien berri emanen dizuegu datozen lerroetan. Urte berri on denei!

Abenduaren 6an udazkeneko mus txapelketari bukaera eman genion, ohitura bezala jokalariek guzietan arteko bazkaria eginez, azken partidak jokatu aurretik. Aurtengoan 24 bikotek jokatu dute txapelketa, beti bezala Larraintzarko Bentan, mahai guziak behar izan zituzten partidak jokatzeko. Liga moduan egiten da sailkapena eta azken partidetan erabaki ziren nor ziren sarituak.

Hau izan zen txapelketako sailkapena:

Txapeldunak:

Joaquin Echenique - Manuel Ciganda

Bigarrenak:

Asensio Alsua - Migel Martikorena

Hirugarrenak:

M. Angeles Osta - Fermina Arregi



Bazkariak lagun artean disfrutatzen ▲



Zorionak saridunei eta zuen sariez gozatzea opa dizuegu, baina jakin ezazue udaberrian berriz saiatuko garela txapela buruz alda dadin.

Abenduaren 14an 2024 urteari agurra eman genion. Ohiturari jarraituz, urteari agur esateko festa egiten dugu. Aurtengoan, Olagueko herrian bildu ginen 150 bazkide, bi autobusetan eta kotxeetan hurbildurik.

Hasierako hitzordua elizan genuen; han aurten hildako gure bazkideen aldeko meza izan genuen. Eliza, aspaldi ez bezala, lepo beteta zegoen, eta hildakoen izenak eta herriak aipatu ziren bertan.



Mezaren ondoren, lehendakariak, urtean zehar elkarteak egindakoaren laburpena irakurri eta ekintzetan parte hartzera animatu zituen kideak. Segidan, bukatutzat eman genuen elizakoa.

Olaguetik Almandotza jaon ginen autobusez, hango Beola jatetxean baikeuen bazkaria.

Han harrera egin ziguten, lehen solairu osoa guretzat prestatuz. Mahai luzeetan eseri ginen, eta iaz bezainbeste bazkide bildu ginen festara. Denontzat izan zen lekua, bakoitza bere lagunekin esertzeko aukera ere izan genuen. Bazkari luze eta goxoa, horrelako lagun arteko festak merezi duen modukoa.

Bestalde, eskualdeko agintariak ere gurekin izan ziren, urteroko moduan. Gainera, opariak ekartzen dizkigute, bazkal ondoren zozkatzeko. 16 lagun mota desberdinetako sariekin itzuli ziren etxera: elikagai kutzak izan ziren gehienak,



San Bartolome basilizan ▲



Gainerako ibiltarien zain ▲



Harriandi mendigainan ▲

baina baita spa baleak, erosketak egitekoak eta neurriko zapatak egitekoak ere.

Ondoren, Jose Angel musikariak alaitu zigun arratsaldea, kantak eta dantzak eraginez.

Oso giro alaia sortu zen eta berehala pasa zitzaigun denbora. Zazpi t'erdia jo bezain azkar etxera itzultzeko autobusa hartu genuen. Oraingoan ere elkarrekin zeinen ongi pasatzen dugun zebilen ahoz aho, hurrengo urtean beste hainbeste egiteko gai izanen garela koan sinetsita.

Azaroaren 30ean, Muskitz inguruan ibili ginen, Jose Antonio eta Begoñaren "eskutik". San Bartolome basiliza ikusi genuen lehenbizi, GR9an dagoena, Gorostieta mendia ren lepoan. Eta gero Harriandiko

aztarnategia ikustera joan ginen. Agerian dago San Esteban monastegiko oinarriaren zati bat, X. mendean egina, dirudienez. Gero Muskitzera itzuli ginen eta bazkaria han egin genuen. Oso egun interesgarria izan zen.

Hurrengo paseoa, Eltzaburun izanen dugu, urtarrilaren 27an eta 29an batzar orokorra. Batzar horretan 2024ko kontuak aurkeztuko dizkigute juntakoek eta denon artean hitz egingen dugu 2025eko ekintzak adosteko.

Datorren alean kontatuko dizuegu nola joan den batzarra. Bitartean, osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatu Elkartea



Talo jate arrakastatsua egin dute eskualdeko Mintzakideek



Euskara ikasten ari diren pertsonentzat euskaraz mintzatzeko espazio informalak sortzea da Mintzakide proiektuaren helburu nagusia.

Azken urteetan hainbat talde izan ditugu martxan eskualdean, eta aurten ere elkartzen ari dira. Asteroko hitzorduez gain, noizean behin, bestelako ekimenak antolatzen ere saiatzen dira. Esaterako, abenduaren 18an talo jatea egin zuten Gerendiaingo elkartearen. Arrakasta handia izan zuen ekimenak, 22 lagun elkartu baitziren bertan, Mintzakide projektuko 4 kide, 3 irakasle eta 15 ikasle.

Parte-hartzaileek kontatu dutenez, giro ederrean pasatu zuten arratsaldea, eta talo goxo-goxoak egin zituzten. Badakigu tripak jaki goxoz betetzea jendea konkistatzeko bide egokia izan dela beti... bada, izan dadila mingainak euskaraz kutsatzeko aitzakia ere!

Eskualdeko mintzakide taldeen tokiak eta ordutegiak:

- Jauntsarasko Apeztegierrin, astelehenetan, 18:00etan.
- Iraizozko Ostatuan, asteazkenetan, 18:30ean.





Muskizko Itsasoneako inaugurazioa, Imozko Egunean

Abenduaren 15ean ospatu dute aurtengo Imozko Eguna Muskitzen, hango eraikin publiko berritua inauguratzeko aprobetxatuz. Muskizko Itsasonea eraikineko teilatua berritzea lortu du Udalak hamar urte eta gero, ehun mila euroko dirulaguntza jasota. Udalaren eta Muskizko Kontzejuaren arteko elkarlana ezinbestekoa izan da proiektua aurrera ateratzeko. Hiru etxebizitza, elkarte eraikinaren goiko parteko guneak –lau lokal eta espazio zabal bat– dituzte Itsasonean.

Imozko Eguna aprobetxatu dute eraikinaren inauguraziorako, eta eskualdeko gainerako herrieta-ko ordezkariak ere gerturatu ziren, Basaburuko, Atezko eta Ultzamako alkateak kasu. Cederna Garalur elkarteko lehendakaria eta EH Bilduko Mikel Zabaleta parlamentaria ere izan ziren Muskitzen.

Inagurazio ekitaldia eta gero, urdaia, txistorra eta salda beroa banatu zituzten herritarren artean, eta zuzeneko musika ere izan zuten Itsasone atarian muntatutako karpan. Imozko herri guztietako jendea hurbildu zela kontatu digute bertar-
tutakoek.



Pulunpeko zozketan musutruk parte hartzen duten ostatueta-ko batzuk



Urtarrilaren 12an izan da **Zozketa Mundiala** eta ehundik gora sari banatu ditugu. Haietako batzuk eskualdeko hainbat ostatu-
k doan eskaintzen dituztenak. Gure hedabideendako **izugarritzko laguntza** da hori. Ostatu guztien publizitatea ez denez ale batean sartzen, apurka-apurka joanen dugu ateratzen.



Etxalekuko Ostata
San Esteban 14
31869 Etxaleku
948 50 30 13
etxaleku-ostata.com



Iraizoko Ostata
San Martín kalea, 18
31797 Iraizotz
948 30 53 28
posadadeiraizotz@gmail.com



Eskualdeko lurren analisia, Cederna Garalurren laguntzarekin

RuralNav 2024 proiektuaren barruan, Mendialdeko eta Bidasoako 12 ustiategi txikiren lehiakortasuna hobetzeko pausoak bultzatu dituzte Cederna Garalur landa garapenerako elkartetik. Nekazaritza eraginkorragoa eta jasangarriagoa lortzeko bidean, lurren analisiak egin dituzte ekoizpen proiektuetan, eta aholkularitza espezializatu eta nekazaritza birsortzailerako prestakuntza ere jaso dute.

Cederna Garalurrek nabarmendu duenez, urteotan elikaduraren eta kontsumo jasangarriaren bueltan egin duten lanketan zenbait hutsune identifikatu dituzte, esaterako, barazki eta fruta ekoizpen oso txikia dela eskualdean. "Martxo-apirilean identifikatu genituen zein pertsonen zuten interesa Mendialdean ekoizpen dibertsifikatuan, komertzializatzeko asmoa zutenak", adierazi dute oharrean. Frutagintza eta baratzegintzari begira, pertsona horiek lantzen dituzten partzeletan luraren karakterizazioa eta aholkularitza teknikoak eskaini diete INTIA erakundeak.

Mendialdearen kasuan, zazpi ekoizpenek jaso dute proiektuaren laguntza, eta gure eskualdean, bi izan dira, Arraratsen (Basaburua) eta Muskitzen (Imotz).



Zorionak Zorionak!

Zorionak Auritz!



*Ortzik lau urte bete ditu!
Zorionak!*



*Manex, abenduaren 18an,
9 urte. Mila zorion!*

Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com





Bukatu da Pilota Goxoa txapelketaren aurtengo edizioa

Basaburuko eta Imozko kirol batzordeak urtero antolatzen du Pilota Goxoa txapelketa, eta aurten ere ez dute hutsik egin. Urriaren 26an abiatu zuten txapelketa, ta ostiral arratsaldetan eta larunbat goizetan jokatu dituzte partidak, Gartzarongo eta Latasako frontoietan. Abenduaren 20an jokatu zituzten hiru mailetako finalak, eta hauek izan ziren emaitzak:

3. mailan, Aleman eta Satrustegik 22 eta 14 irabazi zioten Astiz eta Oltzari;
2. mailan, Zulaika eta Ansorenak garai-pena lortu zuten 22 eta 11 aurretik geldittua; eta, azkenik, **lehen mailan**, Iru-rita eta Aizpuruak izan ziren txapel-dun Oskotz eta Okinenari 22 eta 8 irabazita.



 **residuos de navarra**
nafarroako hondakinak



Etorkizun zirkularra eraikitzen dugu **Construimos un futuro circular**





Magnesioa

eta D bitamina

Kaltzioa gorputzean finkatzeko, beharrezko elementuak

Elikadura orekatu baterako lau hankako mahaiaren metafora erabili zuen Laia Llop nutrizionistak azken kolaborazioan: proteinak, hidratoak, frutak eta barazkiak ziren hanka bakoitza. Kaltziodun elikagaien garrantziaz ere aritu zen. Bada, gorputzean gutzia lotuta dagoenez, kaltzioak beharrezko ditu beste bi elementu gorputzean ongi finkatzeko: magnesioa eta D bitamina.

“Gure gorputzean elementuak ez daude bakarrik, bere horretan, guztia dago erlazionatuta, eta kaltzioarena ere horren adibide da”, hasi du kolaborazioa Llopek. Izan ere, kaltzioak gorputzean duen funtzio garrantzitsua azpimarratu zuen aurreko kolaborazioan, esaterako, osteoporosi edo hezurretako osasunari begira. “Aipatu genuen barazki barazki berdeek, haziek, txitxirioek, almendrak eta halakoek kaltzio asko dutela”. Kaltzioan aberatsa den errezeta gomendio bat ere egin zigun aurrekoan.

Baina, aipatu bezala, gorputza sistema konplexua da, eta guztia

harremanetan dago. Horregatik, gorputzean kaltzioa ongi finkatzeko, beharrezkoak ditu magnesioa eta D bitamina. “Badirudi eromena dela, kaltzioa lortzeko, magnesioa, bitaminak eta beste, egunero matematikak egiten aritu beharra gara, eta ez da horrela. Nahikoa da, berez, nutriente askoko elikagai batzuk presente izatea”, dio.

Magnesioa: harrijasotzaileen eskuetan bezala, gorputzean beharrezko

Kalanbreak ditugunean, maiz lotzen ditugu horiek magnesio faltarekin, eta banana jatea da burura-

tzen zaigun lehendabiziko gauza.

“Egia da banak baduela magnesioa, baina badago fruta bat kantitate handiagoan duena: ahuakatea”, azaldu du. Almendrak eta fruitu lehorrek, haziek, txitxirioek, dilistek, babarrunek eta barazki askok ere badute magnesioa, dena den. “Eta berri pozgarri bat ere bai: kakaoak magnesio kopuru handia du! Hori bai, ez txokolate azukredun horrek, kakao beltza, portzentai handia duenak baizik”, gehitu du.

D bitamina: maukak jaso eta hartu eguzkia

Magnesioa bezala, kaltzioa gorpu-



Magnesioidun elikagaiak ▲



tzean finkatzeko beste elementu oso garrantzitsu bat ere badago: D bitamina. "D bitaminarekin lotuta, klasiko bat da eguzkia hartzearena, eta egia da, oso garrantzitsua da hori". Jendeak galdetuko du, ordea: "Eta, neguan zer?". Bada, lasai, nutrizionistak azpimarratu du bitamina hau pilatu egiten dela gorputzean, beraz, udan hartzea garrantzitsua da. "Berez, ez da eguzkia bitamina ematen diguna, gure gorputzeko errezeptoreak dira eguzkiaren frekuentzia zehatz batzuk jaso, eta azaleko konponenteen bidez D bitamina bihurtzen dutenak", azaldu du. Neguan ere eguzkia hartzea gomendatu du, egunero 15 edo 20 minutuz. "Kremarik gabe, ratotxo bat eguzkitan egotea da gomendioa, besoen barruko parte jarritz eguzkiari begira, gorputzeko zati zuriago horiek", dio.

Gure hezurren osasunarekin zuzenean lotuta dago D bitamina, eta hori xurgatzeko, koipea ere behar du gorputzak. "Badira hidrosolu-



Laila Llop Aizarozko nutrizionista eta medikuntza txinatarrean aditua ▲

bleak diren bitamina batzuk, alegia, urarekin sartzen direnak gure gorputzean. Baina, beste batzuk koipean sartzen dira, grasan, eta hori da D bitaminaren kasua", dio. Zer esan nahi du horrek? Bada,

esneak, esaterako, baduela D bitamina, baina gaingabetua hartzen badugu, ez dugula bitamina hori xurgatuko. "Justu, emakume asko menopausia garaira iristean, gorputza aldatu egiten da, eta pisua hartzen hasten gara, ez da hain erraza pisua galtzea... eta zer egiten da askotan? Afaltzeko yogurth gaingabetu bat hartzea. Bada, gure anatomia eta biolgiari begira ez da komeni zaiguna", azpimarratu du.

Zerk gehiagok du D bitamina? Esneak, arrautzaren gorringoak, arrain urdinak, zenbait hazik ere bai... gomendio bat eman digu Llopek D bitaminari eta koipeari lotuta: brokolia, kaltzioan eta magnesioan oso interesgarri den jakia, beti baporean edo uretan egosia egin beharrean, batzuetan olioarekin erregosia prestatzea. "Brokoliko zenbait nutriente ateratzeko eta aktibatzeko balioko du horrek, uretan edo baporean egosita galdu egiten direnak".

Gaurko errezeta, magnesio bonba

Ahuakatea, banana ondu bat, kakao hauts puru goilarakada bat eta ezti pixka bat birrindu eta mousse moduko bat eginen dugu, txokolate moussea.

Mandarina eta laranja garaia den honetan, horiek zatituta ere gehitu ditza-kegu. Edo, bestela, txikitutako almendra batzuk. "Horrekin postre, merienda edo gosari eder bat dugu, magnesio bonba moduko bat", amaitu du.



Ahuakate, banana eta kakao moussea ▲



Pilulak bakarrik ez, kirola ere preskribatuko du medikuak

Urriaren 15ean jarri zen martxan kirol- eta gizarte-errezeta gure eskualdean. Honen bidez medikuak pilulak bakarrik ez, kirola ere preskribatuko du. Errezeta jasotzen duen pazienteak Ultzamako gimnasioa erabili ahal izanen du astean bitan, kirol teknikariak gidatuta, hobekien datorkion ariketa seriea jarraitzeko. Lau herritar hasi dira honezkero programan.

Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta osasun-zentroek sinatutako hitzarmen baten bidez abiatu da eta Anue, Odieta, Ultzama, Atetz, Lantz eta Basaburuko bizilagunek baliatu ahal izango dute. Mankomunitateak finantzatuko du eta Nafarroako Gobernuak diruz lagunduko du, horrela, errezetak hilean 8 euroko kostua izango du erabiltzaileendako. Elena Galé Oneca Ultzamaldeko Osasun Etxeko zuzendaria da: "Eskaintzen dituen onurak asko dira, medikamentu gutxiago hartu eta pazientearen ongizatean hobekuntzak ekarri ditzake".

Honezkero Ultzamaldeko lau herritar daude kirol errezetarekin, emakume bat eta hiru gizon. Errezeta ez da derrigorrezkoa, gomendio gisa eskaintzen da eta Elena Galé Oneca Osasun Etxeko zuzendariak aitortzen duenez uste zutena baino gehiago kostatzen ari zaie herritarrek parte hartzerantz animatzea: "Hemengo biztanleen sakabana-tzeak egitasmoaren onarpena zaildu dezake. Eskaintzen dituen onuren azalpenean indarra jarri behar dugu". Aitor Alduntzin, Ultzamaldeko Kirol Koordinatzailea da: "Bi hasi ziren eta poliki-poliki gehiago dira. Nik uste dut behin pertsona horiek hasi direla ahoz-ahoz zabalduko dela eta programak indarra hartuko duela".

Farmaziaren ordean, gimnasioa

Hamar hilabetez, asteartero eta ostegunero, ordubetz, Ultzamako

“ **Elena Galé Osasun Etxeko zuzendaria:**
Medikamentu gutxiago hartu eta pazientearen ongizatean hobekuntzak ekarri ditzake ”

gimnasioko Uxue Seminario teknikariak agintzen dizkien ariketak egin beharko dituzte. Helburua baita koitzaren zailtasunen arabera eta

landu beharreko gaitasunen arabera diseinatutako jarduera programa bat osatzea da. Hamar hilabete horietan bilakaeraren jarraipena ere izanen dute, hainbat proben bitartez hobekuntzak neurtuko baitizkiete.

Gaixotasun kardiobaskularrak, metabolikoak, muskulu-eskeletikoak, kognitiboak eta psikosozialak dituztenei zuzentzen da. Baina baita patologiarik ez dutenei ere esate baterako bitzta sedentarioa daramatenei edo jarduera fisikoa bereziki egokia zaien 50 urtetik gorako pertsoneri. Aitor Alduntzin, kirol koordinatzailea: "Gehien bat, gaitz fisikoak dituztenak dira programa honetan aritzen direnak. Baina errezetak harremantzeko ematen duen aukera hori ere gustatzen zait.



Uxue Seminario teknikaria errezeta jaso duten bi pazienterekin



Aukeratu gabeko bakardadean dagoen pertsona batek toki bat izan dezakeelako hemen. Nire ustez arlo hori oso-oso garrantzitsua da". Galé medikuak azpimarratu du, "Isolamendua eta antsietatea gutxitu eta autoestimua handitzen laguntzen du ongizate emozionala areagotuz eta buruko osasuna hobetuz".

Medikuaren orde, kirol teknikaria

Medikuak eginen du errezeta, baina behin gimnasioan hasita kirol teknikariarengandik jasoko da tratamendua. Ultzaman Uxue Seminario da profesional hori, Aitor Alduntzinek horrela aurkeztu digu: "Bera Jarduera Fisikoan eta Kirolaren Zientzietan graduatua da eta esperientzia du. Basaburuan pare bat urte egon da, eta egun jarraitzen du, zahartzaro aktiborako klaseak ematen". Uxue Seminariok berak azaldu digu bere lana: "Medikuaren errezetarekin etortzen dira eta orduan nik zer patologia duten ikusten dut. Horren arabera frogatzen ditugu, kardiobaskularrak eta indarra neurtzekoak, eta, ondoren, bi egunetarako ariketak prestatzen dizkiet. Indar orokorra eta kardiobaskularra lantzen dugu, batez ere. Baita oreka ere, oso garrantzitsua iruditzen zaidalako. Hiru hilabetera frogatzen berberak eginen dizkiet zertan hobetu duten eta zertan ez neurtzeko". Hasi diren lau herritarrak zerotik hasi dira baina pozik daude: "Ez dute orain arte gimnasio bat ere zapaldu! (irriak). Ohiturarik ez dutenez ariketa guztiak zerotik hasi ditugu eta gimnasioko makinak erabiltzen ikasi dute. Oso pozik daude, baina denetarik dago, jakina: gogo askorekin datorrena eta hobekuntzak ikusten dituela esaten duena, etxean ere ariketa gehiago egiten dituen; eta alferkeri gehiagorekin datorrena (irriak). Betiko kontua da, kirola bukatu duzunean eskertzen da! (irriak). Klasetik ateratzen direnean oso pozik ateratzen dira egingakoarekin".

Bizi kalitate ona eta unibertetsala

Aipatu bezala, Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak finantzatuko du programa eta Nafarroako Gobernuak diruz lagunduko du, horrela, parte hartzen duen herritar



Nekane Garmendia Mujika, Odieta

71 urte bete berri dituen Nekane Garmendia Mujikak, Odieta herritarrak, kirol errezeta programaren lau erabiltzaileetako bat da. Egu-berrietako oporren aurretik hitz egin dugu berarekin eta bi astez gelditzeko penarekin erantzun dizkigu galderak. Hasiera-hasieratik joaten da (urritik) eta ospitalean denbora luze egon ondoren muskulatura asko galdu zuen, eta sendagileak gomendatu zion: "Ni behintzat oso pozik nago egiten ari garekin. Hobekuntza handia ari naiz nabaritzen: ibiltzeko garaian, eskailerak igotzeko eta jaisteko, gauza askotan. Nire iritzia oso-oso baikorra da. Ez dakit besteek zer iritzi izanen duten baina ni behintzat oso-oso gustura nago. Gimnasia ere joaten naiz, programatik kanpo, eta taulak badakizkit, beraz, jarraituko dut. Ez dut kirola utzi nahi. Mugikortasun beharra nuen eta horretan asko laguntzen dit, baita orokorra ere, begia galdu nuelako".

rrak hilean 8 euro ordaindu behar ko ditu. Aitor Alduntzin: "Normalean horrelako zerbitzu baten truke, hau da, astean bitan egiten den sesio baten truke, 60 eta 80 euro artean ordaindu daiteke zentro pribatuetan. Laguntza honekin edozeinek du sarbidea. Herritarren bat galdetu digu: '11:00etatik 12:00etara bakarrik joan naiteke? Baina urtean 120 euro ordainduz gero nahi dudanean joan naiteke'- Baina programan tekniko bat duzu zuretzat, ariketa pertsonalizatuak jartzen dizkizuna. Gimnasioko bonoarekin, teknikariaren ordutegian bazaude, ariketa batzuk erakutsiko dizkizu baina ez du zurekin prozesu bat egingo, noizbehinka taula aldatuko dizu, baina ez da zure gainean egongo. Jendeak kirol errezeta eta gimnasioaren abonua orokorra nahastu dezake eta ez du zer ikustekorik".

Seminariorendako, kirol teknikariarendako, kirol errezetak bizi kalitatean izan dezakeen eragina da garrantzitsua: "Orain pila bat urtez bizi gara, baina nola? Bizi-kalitatea gero eta hobetoago izan dadila garrantzitsua da". Kirolak onurak ditu bihotzaren funtzionamenduan eta horrek tentsioaren eta diabetesaren kontrolean hobekuntzak dakartza. Gainera iktusaren eta bihotzekoaren arriskua gutxitzen du, baita osteoporosisarena ere. Elastikotasuna eta mugikortasuna bultzatzean, erortzeko arriskua ere gutxitzen du.

Nafarroa osoan zabaldurik

2021ean Iruñerrian hasi zen programa pilotu gisa, eta, geroztik, Nafarroa osoan zabaltzen ari da, batez ere, azken urte honetan. Baita gurean ere, Josu Larretxea zinegotziak esan digun bezala: "Zaintzaren inguruko hitzarmena sinatu genuen, zahartze aktiboaren programarekin ari gara, aunitz lekuetatik ikusi da beharra eta interesa eta udaletik ikusi genuen mankomunitate osora zabaltzea zela komenigarria".



Eritze goitin egin zioten harrera Olentzerori Atetzen



Erripakoak Olentzeroren zain



Olentzero Lantzen



Sandra Galar Ariztegi eta Ohian Galar Ruano Lizasoko urtetxetan



Olentzero Odietan



Gabon gauan goserik ez imoztarrak...



Ultzamaldekoko dantzari taldea: Iban Baztan, txistularia - Oihane Garcia, irakaslea - Leire Arrieta (soinujolea). Haurrak ezkerretik eskuinera: Amalur Baztan, Iraia Larraiotz, Arhane Insausti, Nahia Orrio, Maddi Ibarra eta belauniko Eider Iraizotz



Olentzero eta Mari Domingi Urritzolan



Eskualdekoko haur batzuk Santurben eman zieten gutuna Olentzero eta Mari Domingiri



Imoztarrak Olentzero eta Mari Domingirekin, herrira jaitsi aurretik



Urritzolan gaztainak dastatu eta gabonetako bi saski zozketatu zituzten Olentzero eta Mari Domingiren zain. Lander Landiribar eta Ainhoa Ezkurra izan ziren saskien irabazleak



**II SAN SILVESTRE
ETULAIN 2024**

Etulaingo San Silbestre



Ultzamaldeko jolasa

Maite ditut, maite, gure bazterrak... zer ikasia ematen digutenean

Hirugarren erreportaje honetan, Alazne Fdez de Muniain erasoarrak eliz giroan pulunpatuko gaitu, neurri batean. Badirudi orain artio hainen natural ibili dugun 'apez' forma galzorian dagoela belaunaldi berrien ahotan. Nafarroa osoko euskarak mendez mende gorde duen 'apez' hitzaren gainean ihardukiko dugu gaurkoan.

Egun on Jainkoak! Jainkoak digula egun on!

Ezagutzen zenituzten agurtze-ko modu horiek? Bitxia irudituko zitzaizuen, ez baita batere nire estiloa. Baina gutartean fededun franko bada eta haiek ongixko ezagutzen dituzte halako diosalak. Izan ere, XIX. mendetik hona ongi ikasi genuen "euskaldun fededun" moral katolikoa...

Tira, gatozen harira. 'Apez' terminoa ekarri dizuet, eta ohi bezala, Ultzamaldeko toponimo bat izanen dut abiapuntu. *Apezalabaki* Odieta-ko leku-izena da: Gaskue, Anotzibar eta Erripa artean dago, zehazki. Gehienetan bezala,

'Apez' aldaera geroz eta jende gutxiagok erabiltzen du gure artean

hitz elkartua da: alde batetik 'apeza' dugu, eta beste alde batetik, 'labaki'. Bigarrenaz ere zertxobait kontatuko dizuet, baina geroxeago.

'Apez' hitza XIII. mendean lekukoturik dago lehenbizikoz, eta Euskal Herriko erdialde eta ekialde

zabaleko hitz orokorra da. Gaur egun, Lapurdin, bi Nafarroetan eta Zuberoan erabiltzen dugu 'apez', Gipuzkoa erdialdean 'apaiz' eta Mendebal zabalean 'abade'. Arabako euskaran *apaez* tarteko aldaera bildu zuten XVI. mendean. Itxura guzieren arabera, aldaerok latinezko mailegu dira, neski: cf. lat. *Abbas*. Gaztelaniaz 'abad' eman du, mendebaldeko hizkeretan 'abade', eta akaso hortik edo horrekin batera heldu da 'apaiz/apez' bikotea gainerako euskal lurraldeetan.

Honatx zer dioen Orotariko Euskal Hiztegiak: 'apaiz' Gipuzkoako testuetan ageri da eta 'ap(h)ez' Iparraldeko eta Nafarroa Garaiko





'Apez' aldaera 'apaiz' edo 'abaderen' maila berean paratzeko aldarria da hau



testuetan. OEHk dioskunez, hizkuntza landuaren eraginez gero eta gehiago hedatu zen 'apaiz' formaren erabilera Gipuzkoako zenbait eremutan: alegia, 'apaiz' aldaerak erdietsi zuen prestigio gehien kontestu jasoetan —hala nola Elizan—. Esan beharrik ez, gurera ere ailegatu da azken hamarkadotan, baina kasu honetan eskolaren bitartez.

Kontuak kontu, hiztegi ezagunenek —adibidez, Elhuyarrek— 'apaiz' forma giputza hobetsi dute, baita mendebaldeko 'abade' ere. Betiko leloaren betiko leloa da: lau lurraldetan nagusi den 'apez' hitza ez da ageri hiztegiko sarrera nagusi gisa: ondorioz, ez da testuliburuetan ageri, edo hedabideetan... finean, euskara batu estandarrean egindako ezein gauzatan. Oraindik

ere uste duzue inguratzen gaituen euskara ez dela "EuskalAutonomiaErkidegoZentrista"?

Begira diezaiogun EHHaren mapari. Gure alderdira etorritz, EHHako inkestagileek *apéza* bildu zuten Alkotzen, *apéz* Suarben, *apéz* eta *ápeza* Igoan, *ápezá* Berueten eta *apéz* Etxalekun. Alkozko solaskide batek, halaber, 'lavandera blanca' hegaztia izendatzeko *apétxorie* erran zuen... eta hara! Hitz hori bai, 'apeztxori' badakarte hiztegiek, alajaina!

Hiztun batek begietatik eta belarrietatik ikasten du, eta euskara karrikako hizkuntza ez den guneetan are gehiago. Paisaia linguistikoak indar edo eragin handia du. Irakurtzen edo entzuten ditugunak euskara batu estandarrean daude gehientsuenetan, eta meza

ematen eta aitortzak entzuten dituen gizonezkoa 'apaiza' dela ikasi genuen eskolan, eta oraindik ere irakasten. Hortaz, naturala den bezala, 'apez' aldaera gero eta jende gutxiagok erabiltzen du ihardukitzean. Horixe gertatzen da gurean ere, batez ere belaunaldi berrien artean.

Bitxiki, azken ideia horri kontra egiten dion pasadizoa kontatuko dizuet, lehengoan gertatua. Kua-drillako batekin jolasean ari, eta nire gogoetak eta buruhaustek azaldu nizkion: 'apez' aldaera gero eta gutxiago entzuten dela, euskaldun zaharrek ere nahi gabe forma estandarrek erabiltzen dituztela euskaraz, eta abar, eta abar. Adiskidea euskaldun zaharra da, golaraztarra du ama. Halako batean



▲ Latasa-Imozko edo Eguarasko Apeziturri bezala, Berroetan ere (Baztan) badute leku-izen bera



eten ninduen, zertaz ari nintzen ulertzen ariko ez balitz bezala: "Eta nola demontre esaten zaio, ba, 'cura'ri?" galdegin zidan. Jakina, bere buruari 'apeza' datorkio naturalki! Ongi erroturik dauka Imozko hizkera, 'apez' hitza bai, behinik behin. Irri egin genuen.

Eskualdeko toponimiari dagokionez, Odietako *Apezalabakiz* gain, *Apezalorra* dugu Iraitzen, Arizun eta Beuntzan; *Apezaren Euntzea* Goldaratzen; *Apezaren Baratzea* Eltson; *Apezaren Iralarrea* Latasa-Odietan; *Apezaren Partea* Ilarregin; *Apezaren Soroa* Orokietan; *Apezbide* Burutainen; *Apezeneko Borda* Etxalekun eta Lantzen; *Apezetxondoa* Suarben; *Apeziturri* Eguaratsen eta Latasa-Imotzen... eta, nola ez, Jauntsarasko Apezte-giberriko denda eta ostatua, begi-bistan! Zerrenda aunitz gizenduko litzaiguke, gainera, herri baxotxean dauden *Apezetxeak* izendatuko bagenitu. Gure eskualdeko apezak kontent egoteko modukoa, a ze-nolako ondarea! Bueno, ez dugu Elizaren immatrikulazioen melona gaur irekiko...

Nafarroa osoko toponimian hamaika adibide ditugu, Larraundik Zaraitzura, Mañeruibartik Bortzrietara. Bizpahiru aipatze aldera, *Borda Vieja de Apezarra* dugu Tirapun, *Camino de Apezundegi* Lezaunen eta *Apeztegiatorra* Uxuen. Mañeruibarra azaldu baita, bitxikeria bat kontatuko dizuet. Mañerualde horretan, 1567an, toponimo bitxi bat lekukotu zuten: *Apezac Ardoa Ixurizueña*. Ezin deskriptiboagoa! Ez behar baten berri ematen duten leku-izenak uste baino ugariagoak ziren Erdi Aroan. Euskalkia galdurik duten eskualdeak dira arestikoak, baina toponimoek euskara zaharra gordetzen dute, nafarrera.

Gure eskualdean euskararen aldeko jarrera atxiki zuten apez askok, gehienbat Imotzen eta Basaburuan

Horrenbestez, 'apez' aldaera 'apaiz' edo 'abade'ren maila be-rean paratzeko aldarria da hau. Euskara batuak parekatu ditzala nahi nuke, gure tradizio idatzian hasmentatik bilduta dagoen forma da. Euskara batuak 'apezpiku' eta 'apeztxori' onartu ditu eta hiztegitan ageri dira; zergatik 'apez' bigarren mailako?



Apezalabaki leku-izenaren bigarren elementuari azaletik helduko diot orain: hots, 'labaki' hitzari. 'Labakia', 'luberria' edo 'berroa' izenek gauza bera adierazten omen dute: lur ebakia, lur berria, berriz lantzen den lurra. Denek ezagutzen dugu Lakita S.A. enpresa, errepideak konpontzeaz eta obrak egiteaz arduratzen dena. Baina zer ezkututzen du bere baitan izen horrek? *Lakita* ahozko forma islatzen duen izena da, kontrakzio bat da, hemengo euskarak letra asko "jaten" baititu. *Lakita* egiaz *Labakiet* da (labaki + -eta), labaki asko

dagoen gunea, Berroeta bezala, alegia! Eta horretaz ari garela, *Labakiet* Etxaleku eta Ihaben arteko mugako toponimoa da.

Berriz 'apez' kontzeptua ahotan hartuz, azken hitz bat, pilula historiko bat. Eliza Katolikoari askotxo egotz dakioke, baina gaur, apezaren aldeko mezua helaraziko dut. XX. mendea zeharkatu zuen frankismo garaia askotariko ondoreak ekarri zizkien gure herriei, hala nola jendearen pentsamoldea eta hizkuntza eralduntzea. Elizaren eta Eskolaren eskuak berebiziko garrantzia izan zuen eralduntze-prozesu horretan —bigarrenarenak batez ere—. Herri bakoitzeko egoera apezaren jarreraren arabera izaten zen: horrela, kasuan-kasuan, euskara sustatzea lepora lekiokoe Elizari.

Gure herri askotan mezak euskaraz izaten ziren Espainiako Gerra Zibilaren aurretik, baina hori hasi eta aldaketa handia gertatu zen: ordura arte beti euskaraz predikatzen zen zenbait herritan gaztelaniaz egiten hasi ziren. Katixima, eskolan irakasten baitzen, oro har ohikoagoa zen gaztelaniaren presentzia predikuan baino, nahiz eta herri batzuetan euskaraz erakusteko obligazioa ere bazuten. Nolanahi, gure eskualdean eskolak ahalmen eztabaidaezina izan zuen haurren eralduntzean, baina "Jainkoari eskerrak", apez askok euskararen aldeko jarrera atxiki zuten, gehienbat Imozko edo Basaburuko herrietan (ez guzietan).

Tira, honaino gaurko "sermoia". Nekez harrapatuko nauzue apez artean, bai ordea karriketan edo oihanean barna paseoan. Agur jaunak, eta andreak!



Alazne Fdez de Muniain



deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA EFIZIENTEAK



ENERGIA AURREZTEA



**SEGURTASUNA ETA
SENDOTASUNA**



ERABATEKO ISOLAMENDUA



Nolakoak ziren

Goñi Lazkanotarrak?

Lau hitz, motz-motzean

Nolakoak, zer modukoak ziren goñitarrak? Familia hau ezagutu zuten herritarrak aspaldian hil ziren. Eta oraingo Berueteko zaharrenek deus gutxi dakite: familia problematikoa zela, lapurreta tikiak egiten zituena, ardi edo axuri, etxean jateko. Eta gehienik azpimarratzen dutena: ikaraturik zeukatela herri guzia.

Neurriz ez ziren nabarmentzen, aipatu izan dugu, bai zaharrena eta bai gazteena, 1,60ko bueltan zebiltzala. Juan Martin zen, anaietan bigarrena, luze samarra, 1,70 metro baitzituen, garai hartan gutxi bezalakoa. Dena dela, Joxe, gazteena, nahiz luzeran 1,60koa izan, lodieraz Juan Martin bezainbeste zen. Motza eta lodikotea. Eta bularrez sendoa izateaz gain, **Korajoso**a ere bai norbaitek esan digun bezala.

Beren izaera

Beren izaeraz zertxobait esanen

dugu, batez ere lekukoren batek edo bik esandakoan oinarriturik. Nonbaitik hasi behar eta buru arin samarrekoak zirela esanen dugu. Zorrak pagatu behar, hori zen erabili zuten argudioetako bat, eta egia izanen zen. Nahiz dena esan behar bada, Aizkorberri, hil eta momentuan, kendu zizkioten 600 pztako dirutza banatu egin zuten hiru anaiak. Harrigarria, Bernardok ez zuen zor handirik ordainduko tokatu zitzaizkion 200 pzta zikinekin, ez horixe! Esan duguna, buru arin samarrekoak ziren!

Lapurretei esker, haragi asean bizi, besteak ez bezala. Jatekoa aise egiten zuten. Baina aipatu behar da, eskuzabalak ere bazirela, hori dugu entzuna.

Eskuzabalak alde batetik eta bestetik abarrak. Eta hori erakusten du heriotza egin eta Leitzarako bidea hartzeak Juan Martinek eta Joxek. Zertarako eta beste zereginen bartzuen gain, **Aiñean** modako gerrikoak erosteko, alajaina! Hari kolore biziz egindakoak. Nabarmentzea ere gustuko zuten. Leitzako joan-etorriaz gainera, 1924. urte guzian



Gure kontakizuenan agertu diren etxe gehien izenak ▲



erakutsi zuten haserre eta oilarke-riek ez dute besterik bistaratzen.

Bihozgabeak ere bai, gizona horrela hiltzeko barnea behar da gero!

Ez ote ziren antisozialak? Korpus eguneko ikaragarria izan zen. Juan Martinek, Bernardino Urtxiapiarekin batera, antolatu zuen izua eta eskandaluak hori erakusten digu.

Eta Aizkorberen kontrako eraso eta gizaixoari bizia kentzeaz zer esan? Heriotza ematerakoan Joxek erakutsi zuen hoztasuna eta bihozgabe-keria, neurritz kanpokoak izan zen.

- *Ekarrek aizkora!*

Nola irits liteke zure koinatu beharra diru pixar bat kentzeko hiltzea? Ezin sinetsia izan zen dena!

Baina erori zirenean, hiru anaiak Le-kunberriko kuartelean bildu zituztenean, jendea kuartelera hurbildu zenean Berueteko piztiak ikustera,

hor zituzten ikusi erabat eroriak, lur jota, abailduak.

Hor ikusi zituzten negar zotinka hai-nen anker eta harro ibili ziren ikaz-kinak. Hala omen zioten:

- *Ez'tuu mereze bizitzeel!*
- *Hil zayutela hemen bian! (1)*
Ez'tuu mereze bizitzeel!

Kartzelan azken egunetan bederen erakutsi zuten nahigabea eta damua jaso behar zuten zigorraren parekoa izan zen. Aurreko Pulunpe batean kontatu genuen nola izan zen.

Errukarriak ere baziren bere krudel-tasun neurrigabeen!

Urkaberara eramán zituztenean analetako batek halako oihu lazgarri hau bota omen zuen:

- *¡Señores, tened compasión de mí!*

Zertaz ari ote zen? Bizia salbatzeko esperantza izpiren batekin? Ezez-

koan nago ni, bere arimaz errukia eske ari zen, dudarik gabe!

Krudelak bezain dohakabeak!!!

 **Txurdan**

(1) Ez zuten "hil zayutela" esanen aurki, hil gatxatela edo horrelatsu esanen zuten. Oraindik Basaburuan nor-nork aditza ongi baino hobeki ibiliko baitzuten. Gehiago jakinik goñitarrek espainol eskolarik ez zutela inoiz zapaldu.

- **Hiztegia**
- **Abarra:** aise gastatzen duena, izan dirua, izan alimentua, izan... (hemen-goia ere bada hitz hau. Arrunta da).
- **Antisoziala:** buruko gaitz bat da.
- **Pixarra:** pittina.
- **Abaildua:** Abatido.
- **Urkabera = Urkamendia:** horca.
- **Dohakabea:** desdichado.

Izarretan idatzia zegoen

Dena zegoen determinatua

Hala zegoen familia honen etorkizun beltza. Determinatua. Bernardok ume bat bi urte eskasekoa eta bestea sei hilabetekoa zituen 1924ko hasieran. Eta urtarrilean (ilbeltza) hil egin zitzaion bigarren haurra, Alejo, pneumoniaz. Horrelako zoritxarra izan eta gelditzeko, txukun jokatzeko, nahiko abisua bazuen, baina ez zen kokildu.

Ondoren, maiatzaren 11an, anaie-tan zaharrena eta gazteena, Bernardo eta Joxe, **Garaikoan**, bere koinatua Marcos Garro ostalari zegoen etxean, haserre gogorra izan zuten **Errandoneko** eta **Plazeneko** nagusiekin, Miguel Angel eta Carlos Azpirotz anaiekin. Hauek goñitarren aitaz gaizki esaka, eta ho-



▲ *Hemen dago Fermin Telletxea Erasun, Iturriagako nagusia, 70 urtetan. Lizar arbak egiten ari zenean, 1924an, 38 urte zituen. (Legasan bizi eta bere iloba den Sagrario Etxeberria xaloak eskuratu digu fotografia hau)*

rrela izan zen haserre juzgadura bukatuko zena. Zer ote zioten azpi-roztarrek goñitarren Pedro zenaz? Pedro ere bere umeen parekoa? Larri ibili!

Ekainaren 19an, Korpus jai nagusian Juan Martin ibiliko zen Bernardino Urtxiapiarekin batera tiroka elizari eta prozesioari. Hurrengo egunean, Urtxiapiak ihesi egin zuen baina ez Juan Martinek. Beharrik Urtxiapiaren familiaren onberatasunak libratu zituen! Beharrik? Ez ote zen kaltetzat izan merezi zuten zigorrak gabe gelditzea? Hala gertatu izan balitz, beharbada, ez ziren iritsiko gizona hiltzera!

Libratu eta atzera egin beharrean, aurrera jo zuten, alajainkoa! Eskribiturik balego bezala izarretan.



Bai, eskribiturik zegoen. **Joantzarnean**, irailaren 10eko gauean, baso ardo batzuk hartu bidenabar, gaiztakeria egitea adostu zuten, ez leku eta ez ordu onean, alajaina! Errazkerian ibili ziren eta aurrera jotzea erabaki zuten. Eta bihar-munean, eguna argitzean ez zuten atzera eginen. Bezperan bezain ilun zen.

Hala, herri hurbilean den **Iturriagako** borda ondotik pasatu ziren eta ez zuten ikusi han ari zela Fermín Telletxea lizar arbak egiten. Amildegia bazter utz zezaketen baina itsu, deus ikusi gabe aurrera jo zuten. Erortzear ziren, eta hala ere guzien gagnetik, aitzina!

Martin Aizkorbe, Juan Martinek aizkoraz hil behar baina ausartu ez. Momentu ezin hobea beren erabakia hautsi eta atzera egiteko. Eta hara non, gazteena, gaztetasunez eta buru arintasunez lepo, aizkora anaiari kendu eta aurrera segitzea erabaki zuen.

- *Ekarrak aizkoa!*

Ihes egin ere ez?

Ez zuten hilaren gorpua leizean behar bezain ongi ortzi, erdi age-rian utzi zuten. Hala ere aurrera jo zuten, diruak kendu eta Leitzara erosketak egitera.

Herrian ere aski laster ikasi zuten Ferminek ikusi zituela txendaz txenda bi anaiak eta Aizkorbe, lerroan, baina deus gertatuko ez balitz bezala segitu zuten beren eguneroko egitekoekin, jendea ilarregiarraren bila zebilenean gainera. Bai, ez zegoen gorpua erraz-erraz opatzeko ere, baina garbi zegoen Santa Graziko leize-tik Martin Aizkorbe oihuka ari zela. Ez entzuna egin zuten. Determinatua zegoen eroriko zirela.

Eta erori egin ziren Guardia Zibelen atzaparretan, eta libre ateratzerik ez zuten izanen.

Herrian joka ibili eta hala ere aitortzen ez. Zibiletako kaboak hala esan zion **Barrantx** alkateari:

-*Horrela ibili eta hauek ez balira?*

-*Bai, bai, horiek dira, seguru!*

Bitartean anaia zaharrena, Bernardo, etxetik kanpo, ortzika, landan, arto artean. Zergatik ez zuen Frantziarako bidea hartu eta Belate pasa eta Saioa aldetik Frantziara jo? Determinatua zegoen eroriko zela eta hau ere erori egin zen.

Determinatua zegoen denak preso hartuko zituztela. Eta determinatua zegoen, ez Alfonso XIII.ak eta ez Primero de Rivera jeneralak, ez zutela atzera eginen.

Toki ederrean zebiltzan gure herri-tarrak! Espainia zipotz portatuko zen hiru ikazkinekin, euskaldunokin beti portatu izan den bezala, miserableki. Hori zen eskolan inoiz ibili gabeko beruetarak ez zekite-na; baina determinatua zegoen.

Eta urkatu eginen zituzten Iruñeko kartzelan. Bizia utzi zuten. Idatzia zegoen izarretan.

Eta determinatua zegoen euskal literaturan sartuko zela Beruete-ko lapurrek egin zuten heriotza, Lanzkoak sartu ziren bezala.

Hamar urte beranduago Euskal Literaturako gailurra izan zen Orixek bere poema "Euskaldunak" ederrean sartuko zituen. Betiko!

Determinatua zegoen dena. Izarretan idatzia.

*Hurrengoan segituko dugu azalduz Orixeren **Euskaldunak** poema luzean nola ageri diren herrikideak!*

- • • • •
- **Hiztegia**
- **Onberatasuna:** bondad.
- **Erortzear, hiltzear, akabatu-**
- **tzear:** a punto de.
- **Gorpua:** cadáver.
- **Ortzika:** ezkutuka (Imotzen
- behintzat ibiltzen da hitz hau).
- **Miserablea:** adiera bat baino
- gehiago ditu, ia-ia kontrajarriak
- ere bai: Eman dezagun, *gizon*
- *hoi? putakume galanta, **mixa-***
- ***ble** hutse!* Edo: atxo **mixabilia,**
- *jatian'e ez dik gastatu nai.*
- • • • •



Iturriagako borda Altzorron ▲

Urbanidadea, ez urbanismoa

Ardo frexkotik



Egin dezagun uretara salto

Euskaraz hala edo hola moldatzen naiz. Igeriketan batere ez. Eta igeriketan ikasteko ere ez dut egia esan halako gogo handirik. Nahiago dut euskaraz ari hizketan, irakurtzen, idazten. Horrek asebetetzen nau eta mila aldiz atsegingarriagoa zait. Dena dela, bultzatu naute igeriketara. Eta horretarako abonua bat erosi dut, igerilekurako.

Bi ikasle besterik ez gara eta hor daramagu bi aste erakustun neska gazte erdaldun batekin. Eta gaur ez da azaldu. Halako batean, mutil gazte bat datorrela ikusi dut, hizketan beste batekin. Eta ene baitan: *hau gutxienez euskalduna duk*. Hizketa modutik berehala antzeman diot.

- Buenos dias, yo soy Julen.

- Eta ni Juan. Zer zara, erakustun berria? Orain artio neska bat izan dugu, Martina.

(Sumatu bezala, ikusi dut erraz ulertu didala eta euskaraz ere ederki jakinen

duela. Oso-oso gutxitan okertzen naiz horrelako egoeretan).

Eta honela izan da ondorengo jarduna:

- Bai, pero yo prefiero hablar en castellano.

- Eta nik euskaraz.

- Creo que no me has entendido. Yo prefiero en castellano.

- Bai, bai, ulertu dizut, baina, nik nahiago dut euskaraz. Ni naiz klientea!

- A!

Azkenean "ulertu" du, eta euskaraz aritu gara, erabat. Hurrengo egunetan ere bai.

Gazte honek eta beste hainbatek ez dute inoiz entzun "**Lehen hitza euskaraz**" leloa eta kontu horiek guziak. Ez diete eskolan erakutsi. Edo euskaldun bat inoiz ez daitekeela bortxatu espainolez aritzea, igerilekuko gazte honek

bortxatu nahi izan nauen bezala. Ez zaie erakutsi inon, eta erakutsi gabe nekez eginen dituzte gauzak behar bezala.

Baina harrigarriagoa ere bada, mundu guziak dakien hori, alegia, "klienteak beti du arrazoï" ere ez zekiela. Hori ere etxean edo eskolan ikasi beharko lukete. Urbanidad, deitzen zitzaion nittikia nintzela, eta kolegioan behintzat erakusten zen; familian zer esanik ez!

Ingeleseaz ikasteak baino lehentasun handiago du "*urbanidadeak*" Beste modu batera esanik: errespetua, ikus-tatea, gizalegea... horiek guziak dira behar-beharrezkoak mundu honetan. Eta horiek gabe, ez zara inor munduko jakintsuena izanda ere!

Ardoa ozpinduz doala ageriko gauza da. Eta honi buelta eman behar zaio, adiskide! Nola? Pentsatuz... eta...



Txurdan



Hiztegia

Igerilekua: piscina.

Asebate: satisfacer.

Erakustuna:

erakusten duena. Hitz hori arrunt-arrunta dugu hemen.

Leloa: lema.

Bortxatu: behartu indarrez. Violentar. (Egunero-egunero, zenbat bortxa dagoen euskaldunen kontra!).



Amaia Apalauza

Angela Davisen 'Abolizioa' lana ekarri du euskarara sustrai imoztarrak dituen itzultzaileak

Katakarak argitaletxearekin argitaratu berri du Apalauzak 'Abolizioa. Politika, praktikak, promesak' liburua. Euskarazkoa izan da lehendabiziko itzulpena, gainera, eta momentuz, bakarra. Lehengo eta gaur egungo kartzela sistemak aztertu ditu pentsalariak lan honetan, hainba hitzaldi, artikulu eta liburutan oinarrituta. Apalauzak eman dizkigu xehetasunak.



Kartzela zapalkuntzarako tresna dela azpimarratu du Davisek lan honetan, ezta?

Bai, Davis beti egon da nolabait kartzelarekin lotua, bera ere egon zen barruan, eta bere jardun aktibistan beti landu duen gaietako bat da kartzelaren abolizioarena. Davisek dio kartzela estatuak erabiltzen duela gizarteko zapalkuntza eta indarkeriak are gehiago indartzeko. Berez, 'konpondu' nahi duen hori indartu egiten du kartzelak, bere aburuz.

Zapalkuntzarako tresna dela argudiatzeko, datu ugari bildu ditu maisuki lan honetan?

Bai, maisuki, edo hobeki esanda, maistraki! Egia da datu asko ematen dituela liburuan, kartzela sistemaren inguruan. Gehienak AEBtakoak dira, baina norantz goazen erakusteko balio dute, kartzela eta zigor sistemak norantz doazen ikusteko. Datu horiek erakusten dute zertarako diren kartzelak, zergatik ugaritu diren hainbeste, nor zigortzen den horietan... gehiengo langile edo

behe klaseko pertsonak izaten dira, gehienak arrazializatuak, eta gero eta gehiago dira emakumezkoak. Kartzela tradizionalki gizonzkoen esparrua izan da, baina Angela Davisek ematen dituen datuen artean, bada bat behin eta berriz errepikatzen duena: kopurutan gizonzko gehiago dagoela, baina emakumezkoen kopurua askoz ere erritmo biziagoan ari dela handitzen.

Geroz eta kartela gehiago, preso gehiago eta geroz eta kriminali-



zazio gehiago dagoela ere badio berak, ezta?

Bai, berak 'krimenaren ideologia' deitzen dio. Nolabait, gizarteari sinestarazi nahi diote etengabe arriskuan bizi garela, geroz eta krimen eta kriminal gehiago dardela. Horrela, sektore jakin batzuk kriminalizatu egiten dituzte: behe klaseko jendea, arrazializatu, emakumezkoak... Baina, hemen kontua ez da geroz eta krimen gehiago dagoela, baizik eta geroz eta jende gehiago kriminalizatzen dela, eta horrela zuritu nahi dute kartzela beharrezkoa dela, beldurra hedatuz.

Eta, kapitalismoan, kartzelak negozio ere badira...

Bai, maltzurra eta makurra da. AEBtan izugarria da... Daisek 'kartzela industria konplexua' deitzen dio. Dioenez, geroz eta kartzela pribatu gehiago dago, pribatizatzen ari den sektorea da, kartzelak korporazio handien esku daude gaur egun, presoak lan egitera behartzen dituzte... negozio gisa daude planteatuak, eta negozioek ongi funtzionatzeko produkzioa eta lehengaia behar dituzte. Zein da kartzeletako lehengaia? Pre-

“
Liburu sakona da eta horrek lan pixka bat eman dit, baina oso gustura egin dut
 ”

soak. Beraz, teorian krimenaren kontra eraiki dira kartzelak, baina benetan helburua bada geroz eta preso gehiago egotea, hor ez da ezer konpontzen, tranpa bat da. Diru kopuru izugarriak mugitzen dira kartzela sistemaren bueltan, eta AEBtako ekonomian garrantzia handia duen sektorea da.

Nola dago liburua antolatua?

Testu bilduma bat da, aurretik han eta hemen argitaratutako lanak, edo zenbait tokitan emandako hitzaldiak bildu dira, gehienak 1997tik 2007ra artekoak. 12 kapitulu ditu bost ataletan banatuta, eta hiru motako testuak dira: badira testu historikoagoak, AEBetako esklabotza sistematik gaur egun-

go kartzela sistemara nola iritsi diren azaltzen da, datu historiko asko emanez... Gero, dimentsio politikoko testuak daude, artikulua hauetan etengabe egiten baitu kartzela sistemaren inguruko gogoeta, zer sustatzen den, nor zigortzen den... Eta, azkenik, ikerketaren adarra dago, bukaera aldera hiruzpalau kapitulu daude landa lanean oinarrituak. Davisek beste ikertzaile batzuekin batera elkarrizketak egin ditu batez ere emakumeen kartzeletan, Kalifornian, Kuban eta Herberetan. Emakume presoei elkarrizketak egin dizkiete, jakiteko nola bizi diren, zergatik dauden kartzelan, nola pentsatzen duten... ikerketa horretan jasotakoa ere azaldu du.

Nolakoa izan da itzulpen prozesua?

Oso lan sakona da, oso zehatza. AEBtako sistema juridikoa askotan aipatzen da, eta horrek lan pixka bat eman dit, terminologia aldetik oso zehatza delako, eta badira figura batzuk hemen erabiltzen ez direnak, justizia sistema ezberdina delako... hor bilaketa lan sakon xamarra egin behar izan dut. Eta, bai, gauza batzuk oso teorikoak dira eta lana eman didate, baina aldi berean, oso gustura egin dudan lana izan da.

Proposamena egin zizutenean, zergatik sean zenion baiezkoa?

Alde batetik, oso zaila egietn zaidalako ezetz esatea, eta are gehiago goxokitxoak jartzen dizkidatenean aurrean. Baina, bestetik, aurretik ere itzulia nuen Davisen beste liburu bat, eta bere idazteko modua eta teorizazioa, bere aktibismoa... asko maite dut, eta niretzat oso erakargarria eta interesgarria zen. Gaia interesgarria, egilea ere bai, eta, gainera, iruditzen zait euskaraz halako lanak behar ditugula.



▲ Angela Davis, liburua sinatzen



Urte berrirako erronka: tokiko komunikabideak irakurri eta entzutea

Oharkabean pasa zaigu urtea, berriz ere. Eta ari gara 2025 urte berri honetarako erronkak gure buruari jartzen. Bada, Pulunpetik eta Esan Erranetik erronka proposamen batekin gatozkizue: zergatik ez arreta gehixeago jarri 2025 honetan gure tokiko komunikabideei? Amezti.eus-en aurkituko ditugun eduki hauetatik hasi gintezke...

Eguberrietako oporrak hartu ditu abendu bukaeran Esan Erran irratia, baina hori baino lehen, eta hilero bezala, hamaika kontu landu dituzte Egun Ero irratsaioan. Dakizueenez, kulturaren hilabetea izaten da abendua Euskal Herrian, Durangoko liburu eta disko azokara begira egoten baikara guztiok. Hori dela eta, zubiko aste horretan irratsaio bereziak izan genituen, irratsaio 'kulturalagoak', nolabait. Eskualdeko egileak elkarrizketatu genituen, esaterako, Iñigo Astiz idazle ultzamarra, *Monogamoak* bere azken liburuaz, eta sustrai goldaraztarrak dituen Amaia Apalauza Ollo itzultzailea, euskarara ekarri berri duen Angela Davisen *Abolizioa* lanaz. Kartzela sistemen inguruko hausnarketa bultzatu du egile ezagunak liburu horretan, eta lehendabiziko itzulpena euskarara izan da. Xehetasun guztiak kontatu zizkigun Apalauzak.

Iñigo Astiz,
Monogamoak



Amaia Apalauza,
Angela Davisen
Abolizioa lanaz



Nabarmendutako elkarrizketen artean, beste bat ere aipatu nahi genuke, abenduaren 11n Oskar Alegria zinemagilea izan baikenuen Esan Erranen, bere azken filmaz hizketan. Esateko ere oso zaila den izenburua jarri dio bere azken dokumentalari: *Zinzindurrunkarratz*. Larraintzarko ostiral kulturaletan izan zela aprobetxatuz egin genion elkarrizketa artistari.

Oskar Alegria,
Zinzindurrunkarratz
filmaz



Bestetik, eskualdeko herritarrek egiten dituzten kolaborazioak daude. Eguberri aurre horretan, garaian ohikoak diren familia otorduez, familiaren pisuaz eta laguntasunaz hausnarketa egin zigun Kata Martak, musika queer txokoan. Hemen entzun dezakezue saioa:

Kata musika
queer txokoa



Oskar Alegria zinemagilea



Izaskun Altuna ultzamarrak aurtengo ikasturtean abiatu duen kolaborazioan, berriz, Hedy Lamarr Hollywoodeko izar ezaguna ekarri zigun, ezezagun den bere beste alderdi batean jarriz indarra: asmatzaile aparta izan zen Lamarr. Dakizuenez, historian itzalpean gelditu diren emakumeak ekartzan dizkigu irratsaioa hilero-hilero Altunak.

Izan ginelako,
bagara: Hedy
Lamarr



Broma Gutxi, honezkero 16. saioa!

lazko fitxaje berria izan zen Broma Gutxi saio musikala gidatzen duen Tipule Meniere. Bi astean behin, punk eta hardcore biniloak zuzenean jartzen dizkigu Esan Erran irratiko estudioan, taldeen eta abestien gaineko informazioa emanaz eta hausnarketarako tarte ere bilatuz. Abenduaren 12an egin zuen 16. saioa. Fin ari da Basaburua txikiko irratilaguna...

Bukatzeko, Egun Ero Kantuz ostiraletako saio berezian azaroaren bukaeran izan genuen gonbidatua aurkeztu beharrean gaude: Laura Martirenak bere bizitzako hamar kanta kuttunak eta istorioa kontatu zigun. Zuzenekoan entzuterik izan ez bazenuten, amezti.eus-en duzue noiznahi entzuteko aukera!

Egun Ero Kantuz
Laura Martirena



▲ Laura Martirena, Egun Ero Kantuz

Eta, Memoriaren Txokoa irratisaioan ere protagonista oso maitea izan genuen abenduaren hasieran... Mikel Laboa handia abenduaren 1ean zendu zen 2008an, duela 16 urte inguru. Horregatik, Euskal Herrian hain garrantzitsua izan zen pertsona ho-

nen inguruko saioa egin genuen. Ai, nere juaneteak!

Memoriaren Txokoa
Mikel Laboa



▲ Mikel Laboa



Urte berri eta kultural on!

Gabonetako programazio trinkoaren ondoren -pelikulak, kontzertuak, tailerrak...- ostiralero, ostiral kulturalekin, eta igandero, neguko zinearekin, publiko guztiarendako jarduerak eskaintzen jarraitzen dugu.


Emakume zientzialariak, helduentzako ipuin kontaketa eta auzolan kultural erraldoia

Hilabete osoan zehar **Emakume zientzialariak** erakusketa interesgarriaz gozatu ahal izango dugu Mari Jose Jodar artistaren eskutik: emakume zientzialarien erretratu originalak, denbora luzez ahaztuta egon direnak eta gizarteari hainbeste ekarpen egin eta egingo diotenak.



Hilaren 10ean ipuin kontaketa saio bat izango dugu... helduendako! Bertan, AMELIE ETA XIRRIKITUEN JOSTUNEK taldeak **Berriak herri** antzezlan eskainiko digu. Zerk egingen du herria herri? Bere jendeak? Bere txokoek? Bere istorioek? Edo bere berriek? Kontatuko ditugunak gertakizunak dira, istorioak, elezaharrak, anekdotak, behin berriak izan zirenak eta, zahartu badira ere, berri izaten segitzen dutenak. Ipuin kontalari erakargarria, euskaraz eta musikaz lagundua eskaintzen dena. Ezin da galdu!

Hilaren 17an, 19:00etan, lagun zahar baten bisitarekin jarraituko dugu. Azken urteetan atsedenik gabe lanean ari den proiektu bat aurkeztuko digu, eta azkenean egia bihurtu da: Patxi Bisquertek Pello Mari Otaño Zizurkilgo bertsolaria-ri buruzko filma, **Ombuaren itzala**, aurkeztuko digu. Gure historiako auzolan kultural handienetako bat aurrera eraman zuen pelikula finantzatzeko, Euskal Herriko bazter guztietatik ibiliz. Ultzaman ere izan zen, eta orain itzuliko da bere film luze hunkigarria aurkeztera.



Rocka eta dokumentala

Hurrengo larunbatean, hilaren 24an (adi ordutegiari: 20:00etan!), Nafarroako rock talde garrantzitsuenetako bat etorriko zaigu: **Párrockos**. Iruñeko taldeak bere azken lana aurkeztuko digu, bere estilo bereziarekin: rock klasikoa country eta swing musikarekin nahastuta, psychobilly eta garage



punk jarrerarekin; gainera, poesia-rock generoan oso landutako letrak dituzte.

Eta hilabetea bukatzeko, dokumental bat: Landa adimena egitasmoari esker, Maddi Barberren **592 metroz goiti** dokumentala ikusteko eta komentatzeko aukera izanen dugu. Nafarroako Pirinioaren magaletan, Itoizko urtegiaren eraikuntzak 1990eko hamarkadan zazpi herri eta hiru natura-erreserba ur azpian utzi zituen... abenduaren 31n izanen da, 19:00etan, Larraintzarko Bentan (Gizarte Etxea), beste ekitaldi guztiak bezala.

Neguko zinema: indarrez ekinen dio bere azken maldari

Neguko zinemari dagokionez, denboraldiko estreinaldi garrantzitsuenetako batekin hasiko gara: **Marco**. Aitor Arregi eta Jon Garaño zinemagileek zuzendutako Moriarti ekoiztetxearen filma da. Enric Marco-ren bizitza biografikoan oinarritzen da eta **Eduard Fernández** du protagonista (Fernandezekin inauguratu genuen arrakasta handiaz gure neguko zinema, **El 47** filmarekin, kasu hartan). Javier Cercas idazlearen **El impostor** liburuaren egokitzapena da "Marco". Bereziki **Bartzelonan** girotuta, CNTko idazkari nagusiaren eta Enric Marco Batle iruzurtiaren bizitzan oina-

ritzen da trama: iragan faltsu bat eraiki zuen, **kontzentrazio-esparru nazietatik** bizirik atera zen, eta airtortza eta sinpatia publikoa irabazi zituen horregatik. **Mauthausengo Amical Holokaustoaren Biktimen Espainiako Elkarteko** lehendakari ohiaren historia da. Urte askotan, gainera, hitzaldi ugari eman zituen ikastetxe eta oroitzapen ekitaldietan. Gizon karismatikoa eta sinetsgarria zen, eta miresmena piztu zuen bere ustezko ausardia eta sufrimenduagatik. Harik eta egun batean, historialari batek bere kontakizuna erabat asmatua zela jakin zuen arte. Hala, Enric Marco inoiz existitu gabeko deportatua bilakatu




zen, iritzi publikoaren eta bere familiaren aurrean imajinatzen zaila zen gezur bati eusteko gai izan zen gizasemea: nazien kontzentrazio esparru batean preso hartu zutela.

Familia osorako film bat

Marco urtarrilaren 12an proiektatuko da, 18:30ean, eta bi film hauek osatuko dute programazioa: 19an **Azken erromantikoak** ikusi ahal izango dugu, izen bereko Txani Rodriguezen eleberrian oinarritua. Hau da sinopsia: Irune segurtasunik gabeko emakume bakartia da, eta joera hipokondirakoak ditu. Arabako industria-herri baten kanpoaldean dagoen paper-fabrika batean egiten du lan. Bere bizitza ezagunen zirkulu txiki batera mugatzen da: lankideak, lagun baten antzeko zerbait den auzokide bat eta inoiz hartzen ez dituen trenen ordutegiak kontsultatzen dizkion Renfe-ko langile bat. Bere oreka hauskorra lehertu egingo da bular batean koskor bat detektatzen diotenean, eta horrek zerikusia duen lan-gatazka batekin eginen du bat. Orduan, bere bizitzak ustekabeko bira bat izanen du, eta aukera bat eskainiko dio, agian, eta jakin gabe, beti zain izan zuena. Pelikula gaztelaniaz izanen da euskarazko azpitituloekin.

Eta bukatzeko, urtarrilaren 26an, familia osotarako film bat: **Ernest eta Celestine**. Ernest basoan bizi den hartz handi bat da, musikaria ogibidez. Neguko lozorro luzetik esnatu denean, goseak amorratzen abiatu da hirira sabela betetzeko zerbaiten bila. Baina musikak ez dio jatekorik ematen, eta zaborrontzietan jaki bila ariko da...

Urte berri on!

 Patxi Irurzun



2024ko azaroa

2024ko azaroan gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

BASABURUA **Udabe-Beramendi**

Ekaitz Barbajero Culleré, Jon Ander eta Mariaren alaba, urriaren 8an jaio zen.



▲ Barbajero-Culleré, semettoarekin

Ezkontzak:

Guk dakigula ez da ezkontzarik izan.

Heriotzak:

ULTZAMA **Auza**

Martin Jose Altsua Toral, **Eskoletxeko** nagusia, azaroaren 23an hil zen, 87 urtetan.



▲ Martin Jose

Iraizotz

Maria Gloria Irigoien Mariñelarena, **Tuferretako** etxeakoandrea, azaroaren 1ean hil zen 90 urtetan.



▲ Gloria, mandarrez hornitua

“ Aupa bat gure gurasoei! ”

“ Beti izanen zaituztegu gogoan. ”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



2024-2025 PROGRAMAZIOA

ORDUA	Astelehena	Ateartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
22-06	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika		
06-08:30	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Naiz Informazioaren haria	Musika	Musika
08:30-09	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala	Euskalerrria Metropoli Forala		
09-10						Landaberri	Osasun Etxea
10-11	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero Kantuz Memoriaren Txokoa	Gonagorri	Gonagorri
11-13:30	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Naiz Info/musika haria	Musika	Musika
13:30-14	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero Kantuz Memoriaren Txokoa		
14-14:30						Hitza Jolas	Kontatzera Noazu
14:30-15	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika		
15-16						Egonarria	Lur eta Murmur
16-17	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Zebrabidea Arrosa Sarea	Adi	Gramofonoa
17-18						Reggae Fever	Z-Kluba
18-19	Gelditu Makinak	Oroimen Histerikoa	Ahapatik	BTN	Patiyoko Atzuak	Musika	Musika
19-20	Desgazea	Ad Libitum	Revolutionary Grooves	Broma Gutxi		Berria FM	Kinka
20-21	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero	Egun Ero Kantuz Memoriaren Txokoa	Broma Gutxi	Otea Lili
21-22	Musika	Musika	Musika	Musika	Musika	Haus of Beats	Sateliteak

▶ Gure saio propioak, Esan Erran irratiakoak

▶ Zebrabidea, Arrosa sareko magazin propioa

▶ Euskalerrria Irratia

▶ Gure musika

▶ Euskadi Irratia

▶ Berria Podcastak

▶ Arrosa sareko beste irratiaren programak (Naiz irratia, Argia Podcastak, Antxeta irratia, Arraio irratia, Kontrako Eztarrixe, 97 irratia, Txapa irratia, Gure irratia)